

Gainera, gure historian, muga, zerena? Izen hori ez al zen ba ezagutzen Bizkai-Gipuzkoen arteko muga jarri baino lehen?

Argi dago jokaera hori libertatearen zentzuzkoa izanen dela, baina ez giza zentzuzkoa. Azkenean, euskararen kaltean eta euskararen etsai holako buruarinak.

\* \* \*

AZPIRI TXIKI, «CHIQUITO DE EIBAR» EN JATORRIZ.— Eibarren, *eibartarra*, bertan jaioa edo bertako jatorrizkoa da; *Eibarkoa*, bertan bizi baina kanpotik etorria edo bertako jatorririk ez duena. Badakigu «Chiquito de Eibar» Durangon jaio zena, baina aita eta aitaren aldekoak jatorriz eibartarrak zirenez, bere burua eibartartzat zuen eta pelotari ospetsua egin zen neurrian Azpiri Txiki izateari utzi eta «Chiquito de Eibar» hartzen joan zen.

Berriki, Migel Pelay Orozkoren *Pelota, pelotari, frontón* liburu ederra irakurtzean, 67. orrialdean nindoala, harriturik gelditu naiz honako hau irakurtzean; «El Chiquito, que no era de Eibar, sino de Durango, había nacido en el caserío Azpiri, el día 22 de mayo de 1860». Baina, Azpiri baserrian ez zen jaio, Durangon ez dagoelako Azpiri izeneko baserriarik, bai ordea Eibarren.

Pilotaren historietan zuzenketarik eginen bada edo ez, argitasun zenbait emango dut horri buruz. Horrenbeste merezi bai du horrelako pertsonaiak.

Eibarko baserrien agiriak ematean, Azpiri deritzanaren lehen aztarnak 1516. urtean agertzen dira. Gaur oraindik zutik dago baserri hori eta pertsonaia ospetsurik eman du, bai Azpiri deituraz eta bai Sarasketarenaz. Eibarko Sarasketak ekaldetik etorriak ziren, baina aintzinatik eibartartuak. Horien adarrik

printzipalena Azpiri baserrian kokatu zena zen. Biktor Sarasqueta, gure mende honen hasieran hain ospetsu egingo zena tirora jokatzat eta bere izenez eskopeta fabrika eraikiz, eibartar zaharrentzat (gure gurasoentzat ez ezik, gure adinekoentzat ere) Bittor Azpiri zen, eta eskopeta lantegia bera ere Bittor Azpirinekotzat ezagutzen zen. Pilotariaren ahaidekoa bai zen, eta haren gurasoak bezala, Azpiri baserrian sortua. Pilotaria bera, izen-deituraz, Indalezio Sarasketa zen.

L. Bombín Fernández eta R. Bozas-Urrutiaren *El Gran libro de la Pelota* (1976) deritzan obraren lehen tomoko 731. orrialdean, honela jartzen du: «Indalecio Sarasqueta, llamado también «Azpiri», del nombre de la casería solar, y conocido vulgarmente por el «Chiquito de Eibar». Hitzez-hitz A. Peña y Goñi-ren *La pelota y los pelotaris* (1892) liburuko 139. orrialdetik hartua da. Luis Bombín-ek *Historia, ciencia y código del juego de la pelota* (1946) liburuko 43. orrialdean zerbait argiago zekarren, esanaz: «Nacido en Durango y vivió en el caserío de Azpiri, de Eibar». Baina, horrela irakurrita ere, nornahik pentsa lezake morroi egon zela Azpiri baserrian, baina aita zuen bertakoa. «Chiquito de Eibar»ek, ama zuen durangarra eta haurdun zelarik, amaren etxera jo zuen hurgintza orduan. Hori da Durangon jaio beharraren arrazoa, ama bertakoa izatea. Baina, jaiotza besterik ez zuen ezagutu Durangon. Eibarko kalean hazia zen eta bere aita Sarasketa «Azpiri» baserri izenez ezagutzen zelako, semea «Azpiri Txiki» bihurtu zen, eta hala ezagutu ere gure gurasoak.

Ojanguren fotografoaren aitaponteko izan zen eta hortik zetorkion Indalezio izena argazkilariari. Eta, adibideok, gurasoeri ez ezik Ojanguren zenari ere zor dizkiot.

J. S. M.